Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

199 zenbakia
2019 **otsaila**

Prest!

BERBETAN: CONCHA CASTELLS CARRILLO DHE-KO ZUZENDARIA

ERREPORTAJEA: UHOLDEAK, SUTEAK ETA PLAZAK **BARKUA:** PHASE ESTUDIOA

TOKIKOM

193-194-195-196-197-198-

Gure babesleak

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bilbao

berbaizu euskaraelkartea

S.D. DEUSTO

BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA

intxixu kastola

etxantxiku .Deustuko Aisialdi Taldea.

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

erraldoien ondalan konpartsa

ARRAVN TALDEA DEVSTV

ELORRI BERTSO ESKOLA

eaj pnv deustu

bekoerri kultur elkartea

zirikatzen!

Etxerat

EGUNSENTIA ESKAUT TALDEA 1982TIK

PARE HAUTSI DITZAGUN KATEAK

DEUSTUKO GAZTE ASANBLADA

MIKELDI DANTZA TALDEA

LABORAL kutxa

ernai Deustua

DEFENDA DEZAGUN!

Babestu Prest! urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

199 zenbakia
2019ko otsaila

aurkibidea

Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia - Nerea Etxaniz Osa **Iritzia** 4

Maider Barrenetxea **Gureak kanpoan** 5

erreportajea 6
Uholdeak, suteak eta plazak

Azken asteotan pi-pilean izan dira Udalaren hirigintza planak eta horien ondorioak. Erriberan uholdeek eta suteek piztu dute auzotarren kezka; San Inazio eta Doneperiagan bertako plazak birmoldatzeko proiektuek.

San Inazio eskola **Eskolak** 10

Itsas-gudua Ibaizabaleko uretan (1873) **Behin batean** 12

Greba feminista Deustu eta San Inazion **Artikulua** 14

berbetan 16
CONCHA CASTELLS CARRILOrekin

Maribel Tellaetxeren auziak eutanasia berriz jarri du mahai gainean. Concha Castellsek, Euskadiko Duintasunez Hiltzeko Eskubidea Elkarteko zuzendaria da Castells, Espainiako Legebiltzarrean tramitatzen ari den legearen bultzadan dihardu.

La Salve zubia eraikitzen, 1969 **Irudiak berbetan** 21

barkua bete berba 24

MUSIKA Ametsak proiektu bihurtuz

POLITIKA Autogestioaren eta okupazioaren ikuspegi politikoa berreskuratu nahian

PINTXODROMOA La Terraza taberna

KULTUR TXOTX Gorka Zozaia eta Ander Anakabe

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Uxue Gutierrez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea
Argazkiak: Iñigo Azkona Bikandi
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia
Gazte mugimenduko kidea

Suntsitzea, sortzea eta idaztea

Agian hiru hitz potoloegi dira 1200 karaktere eskasentzako. Sarritan, baina, ideiek espazioa baino argitasuna behar dute eta gelekin gertatzen den bezala, errazago argitzen dira txikiak handiak baino.

Ez da erraza suntsitzearen eta sortzearen arteko dialektika. Inork ez omen du sortzeko esperantzarik gabe suntsitzen eta ezin omen da ezer sortu, aurretik beste ezer suntsitu gabe. Historian zehar ere hau gertatu omen da eta orain ere antzeman daitekeela esango nuke. Kanpokoa suntsitzearen alde egiten dutenek, "morts pour la patrie" gaueko ordu txikitan abestu edo "nire aitaren (amaren, gurasoen?) etxea defendatuko dut" oihukatu bitartean, elkar suntsituko dute gero euren etxea eraikitzerako orduan.

Ez da erraza suntsitzearen eta sortzearen arteko dialektika, ez, baina, agian, korapiloa askatu dezake idazteak, konta-tzeak, komunikatzeak. Idazten duena sortzen baitabil, idaztea sortzea baita. Nola suntsitu idatzi nahi duen horrek ere sortu egiten baitu ezinbestean.

Eta hor sartzen zara zu, PREST!: 200 ale, iritzi sortzaile Deustun, komunitate euskalduna hauspotzen, komunitate euskalduna badela erakusten, eta herriaren bozeramaile izaten. Garena sortzeko erreminta zara, idatzita dagoena soilik izan baitaiteke. Garena sortzeko den hau ez dezagun hiltzen utzi. Dena sortzeko dena ez dezagun omisioz suntsitzen utzi.

Nerea Etxaniz Osa
Petriletik

Zuretzat

Goxokia naiz zuretzat. Sartu ahoan, utzi urtzen eta eztarria eztitzen, poliki-poliki... Belardi bustia naiz zure oinen azpian, behatz artean kilika; sudur-mintzetatik gora begitartea baretuko dizun lurrina, itsaso-usain goxoa, adibidez. Haize-zirimola naiz, oharkabean bezala aire zaharminduak eta ohitura txar guztiak di-da baten astinduko dizkizuna. Senti nazazu.

Gorputz beroa naiz eguzkitan, igurtzi leun huts batekin goitik behera dardarka jarriko zaituena; beste laztan bat, begiak itxita, baldarkeriak ahaztu eta irudimena pizteko; mingain bat, erraldoia, zauri eta urratu guztiak miazka sendatuko dizkizuna; radarrik sentikorrena ere banaiz, zure zirrikitu guztiak buruz ikasi dituen sen hori. Zatoz hona.

Biziminak ustekabean zugan sortutako bitxia naiz, orain urdin orain gorri orain zilar-kolore... nahieran, eta zure ametsik ero eta beroenak harrotuko ditut. Esfera gardena, zure burmuin barren-barrenean, gogoaren mugez haratago espazio amaiezinetara eramango zaituena.

Eta, batez ere -aditu ondo hau- ARNASA naiz ni, astia, maitatzeko bizi-indarra, patxada urrezko hori. Har nazazu zure eskuetan, lasai-lasai, gitarra otzana naiz-eta, doinurik leun eta ederrenak emateko prest.

Orain bai. Horrela bai. Sentitu eta pentsatu dena, orain eta hemen, aske. Pentsatu zu eta biok, zu eta bera, guztiok eta elkarrekin... Beldur barik.

Maider Barrenetxea Zalbidea

Jatorria: San Inazio
Bizitokia: Erroma (Italia)



"Migratzaileen krisiarekin ez ikusiarena egiten da Italian"

Unibertsitate truke programa batekin urtebete egongo da Erroman Maider Barrenetxea.

Testua
Prest!

Zenbat denbora daramazu Erroman?
Joan den irailetik, sei hilabete.

Zer dela eta joan zinen hara?
Erroma oso hiri polita delako, handia eta kulturalki oso aberatsa.

Zer ikasten ari zara han?
Kazetaritza.

Zelakoa da hango bizimodua?
Garestia. Adibidez, hiriburua izanda, alokairua oso garestia da. Gainera, Erroma hain hiri handia izanda oso erritmo bizian bizitzera behartzen zaitu.

Zer da gehien gustatzen zaizuna?
Lagunak, mugitzen garen lekuak... Mugimendu sozial nahiko aberatsa dago hemen.

Eta gutxien?
Hain hiri handia izanda oso nahasgarria dela askotan: garraio publikoa, kale zikinak... hemengoek esaten duten bezala, erroma "caos" bat da.

Moldatzea kostatu zaizu?
Bai. Hasieran lagunak egitea, jende berria ezagutzea, bakarrik bizitzea... gogorra izan zen. Orain nire etxea izango balitz bezala ikusten dut Erroma. Hala ere, uste dut hiri honetara guztiz ohitzea eta moldatzea ezinezkoa dela, beti egongo delako zerbait berria.

Zelan moldatzen zara italiarrarekin?
Hasieran txarto, baina orain dena ulertzen dut. Italieraz irakurri dezaket eta lasai asko hitz egin. Unibertsitateko klaseak italieraz izateak nahiko lagundu dit.

Italia erdialdean dago Erroma, zelakoa da bertako jendea?
Jatorra, behintzat gu mugitzen garen lekuetan.

Oso desberdinak dira Italiako zonaldeak euren artean?
Bai, iparraldea "europarragoa" da hegoaldea baino. Horrez gain, iparraldea ez da horren kaotikoa.

Italia eta inguruak ezagutzeko aukera izan duzu?
Gaur arte Napolesen, Venezian eta Padovan egon naiz. Erroma inguruko hainbat herri ere txiki bisitatu ditut.

Zelakoa da bertako egoera politikoa?
Salvini da Errepublikako Ministroen Kontseiluko presidenteordea eta Barne ministroa. Beraz, imajina daiteke egoera.

Zelan bizi da migratzaileen krisia Italian?
Ez ikusiarena egiten da. Noizean behin zerbait entzuten da honi buruz, baina ez da egunero planteatzen den gai bat. Hori bai, arrazakeria hemen oso handia eta nabaria da.

Zerk harritu zaitu gehien?
Klase ezberdinen artean dagoen alde handia.

Zer duzu faltan?
Lagunak eta arratsalde osoa haiekin egotea taberna batean eserita.

ERRIBERAKO AUZOKIDEEK UDALAREN IRUZURRA SALATU DUTE

Plan berriarekin hasi zirenetik, hainbat izan dira Erriberako bizilagunen kritikak eta aldarrikapenak, baina azken hilabeteotako gertaerek egonezin handia eragin izan dute. Uholde, sute eta auzoko eguneroko arazoen aurrean, Udalaren jarrera "lotsagarria" dela uste dute auzokideek.

Testua eta argazkiak: Nerea Olaziregi

Deustuibarra eta Zorrotzaurreko auzokideak haserre daude Udalarekin eta auzoaren eraldaketa plan osoa aurrera eramaten ari den Batzorde Kudeatzailearekin. Lanak hasi zirenetik, hesiz inguratuta daude, segurtasunik bermatzen ez duten gune beltzak sortu dira eta balio historikoa duten hainbat eraikin hondatzen hasi dira. Gainera, hutsik dauden etxe eta pabiloietan bizi diren pertsonek eragindako suteak gero eta ohikoak dira eta hori gutxi balitz, kanalaren irekierak, uholde arriskua ekidin beharrean, areagotu egin du.

Arazo horien aurrean, Udalak egiten dituen adierazpenak jadanik ez ditu inork sinesten Erriberan. "Ez gara haiekin fidatzen. Plan Berriarekin etorkizunera begira daude, eraiki nahi duten Bilbo berri horretara begira, gaur egungo Erribera eta bertako auzotarron beharrei muzin eginez" azpimarratu du Unai Perezek, auzo elkarteko kideak.

Uholde arriskua

Udalaren webgunean oraindik irakur daiteke kanalaren irekierak funtzio hidraulikoa daukala uholdeak izateko arriskua murriztuz. Baina gaur egun Erriberako kaleak hesiez gain, lurrez betetako zakuez inguratuta daude. Datozen egunotan egon daitezkeen uholdeen aurrean, badaezpadako neurriak dira. Aurrera begira, ur-tangak eta petril altuago bat eraikiko omen dute. Asier Abaunza Lan eta Hiri Planifikazioko zinegotziaren esanetan "horri esker, uholdeak txikiagoak izango dira". Petrilaren kontua ere zeresan handia ematen ari da Erriberan, izan ere, hainbat tokitatik ezin izango da itsasadarra ikusi.

Irisgarritasunaren kontuarekin ere kezkatuta daude auzotarrak. Gaur egun irlara sartzeko bide bakarra Frank Gheryren zubia da eta aurreko uholdeetan ordu batzuk eman zituzten auzotik ezin zela sartu ez atera. Orain ordezko bide bat atondu duela esan du Udalak. Egun obretako kamioiek baino ez dute erabiltzen baina aurrerantzean, antza, bide hori auzokoek ere erabili ahal izango dute ibaiak gainezka egiten duenean. Hala ere, auzokideek ez dute ebakuazio planen berri. Udaleko larrialdi zerbitzuko langileek

ere ez. Laster, San Inazio eta Zorrotzaurre lotuko dituen zubia eraikiko dute baina hasieran soilik izango da Jauregizar enpresako kamioientzat. Auzokideek urte bete itxaron beharko dute bertatik pasatu ahal izateko.

Ondasun historikoa

Auzokideek ondasun historiko eta industriala diren eraikinekin Udalak duen utzikeria salatu dute. Mantendu behar ziren 19 eraikinetik, bat bota egingo dute jada: Cromoduro enpresaren zaindaria bizi zen baserri neoklasikoa. Unai Perezen esanetan, "eraikinak hiltzen uzten dituzte, hustu eta bertan etxe gabekoak sartzeko". Etxe horretan hainbat sute izan dira eta ez da bakarra. Elorri zeharbidea kaleko etxe batean beste sute bat egon da duela gutxi. "Banco Bilbaoko aurre aldearen harriak Bizi Nahi auzo guneko bazter batean botata daude inolako zaintza eta kontrolik gabe" dio harrituta Unaik. Vicinay enpresaren ondoan zegoen fatxada hau botatzen utzi zietan, aurrealdeko harriak zenbakiekin izendatu eta gordetzen bazituzten. "Ez zaie ondasuna interesatzen. Eraikin horiek bereizten dute hiri bat eta ez kanpotik ekarritako diseinu modernoek" dio Unaik. Argi dute irla berria ez dagoela auzokoentzat diseinatuta. "Udalarentzat gu ez gara lehentasuna, bai ordea, ekimen pribatua" azpimarratu du Unaik.

Iraide Artetxe, Erriberako auzo elkartearen izenean:

"HITZ POLITAK JASO DITUGU BAINA IRTENBIDE GUTXI"

Uholde arriskuak direla eta Udalak hartutako neurrien inguruan zer iritzi duzue?

Adarra jo digutela sentitzen dugu. Aspaldi esaten zuten kanala zabaltzearekin nahikoa zela. Orain zabalik dagoela, ikusten dugu ez dela nahikoa, eta beste neurri batzuk ere ezarri behar direla esan digute: ur-tangak eraiki, ganorazko hoditeria sistema... eta guzti horrekin bai nabarituko dugula. Ikusi beharko da!

Une honetan zeintzuk dira auzoan dituzuen arazo larrienak?

Batetik, egin nahi duten auzo berri edo "Manhattan" hori eraiki arte bizilagunen bizi baldintzak. Gu kontuan hartzea nahi dugu, ez dezatela ahaztu berton jendea bizi dela. Adibidez, gaur egun zubitik lehenengo etxerainoko bidea puntu beltza dela uste dugu, nahiko luzea delako eta inguruan ez dagoelako ezer ere ez. Hor, pasarela bat egitea eskatu dugu bidea laburtzeko. Eta bestetik, etorkizuneko "Manhattan" horretan ere auzokideon beharrak kontuan hartzea exijitzen dugu eta ez soilik higiezinen enpresa erraldoienak. Besteak beste, zerbitzuak, gune berdeak, kirol ekipamenduak eta doako aparkalekuak behar ditugu.

Udal eta Batzorde Eragilearen ordezkariekin urtarrilean izandako azken bileraren baloraziorik?

Hitz politak jasotzen ditugu gehienetan, azken finean politikariak dira. Hitz politak baina irtenbide gutxi.

Aaurrera begira, zer asmo duzue ?

Badakigu erraldoi batekin ari garela borrokan, baina geu gara auzoaren ordezkariak, eta auzoa nahiko erreta dabil; beraz, jarraituko dugu beraiei auzoaren ezinegona helarazten eta auzoa informatzen.

IKASTARO teknologikoak
DOAN!
BLOGA
wordpress erabiliz web sinple bat egiten ikasi eta garapenerako aukerak aztertu
EMAN IZENA:
www.azkuefundazioa.eus/ikastaroa
MARTXOAK 13
Euskararen Etxean

PLAZAK JOPUNTUAN

Udala Bilboko auzoetako hainbat plaza eraldatzeko lanekin hasi da, 'Auzo-bihotzak' deituriko proiektuaren barnean. Besteak beste, Done Petri, Elorrieta eta Lebante enparantzetan egingo dituzte aldaketak eta azken honetan lanak laster amaituko dituzte.

Testua: Prest!

Aste gutxi batzuk baino ez dituzte behar izan Lebanteko kioskoaren inguruan plazaren zati bat estaltzen duen egitura jartzeko. Egitura horretaz gain, egun plaza inguratzen duen estalduraren azpian "joko bio-osasungarrien txokoa" jartzeko asmoa du Udalak.

Proiektuak aldekoen eta kontrakoen iritziak piztu ditu. Batzuek, euria egiten duenerako plaza estalia izatearen beharra azpimarratu dute. Besteek, auzokideen iritzia kontuan ez hartzea egotzi diote Udalari, eta "hauteskundeei begira egindako mugimendu interesatua" dela salatu dute. Ohar bidez argitu dute auzokideek aspaldi egina zutela frontoia estaltzeko eskaera, baina Udalak "entzungor egin eta nahi izan duena egin du", diote. Udalaren jokabidearekiko gaitzespena adierazteko, hainbat lagun elkartu ziren joan den otsailaren 15ean Lebante plazan, *Obra inposaturik ez!* lelopean.

Elorrietako parkearentzako ere badu proposamenik Bilboko Udalak: ponpa etxe zaharra dagoen aldean egitura estali handi bat jarri nahi du. Haurrentzako joko gunea eta jarduera anitzerako espazioa izango da, "itsasoan eta Eraztun Berdean oinarrituta", Udalaren esanetan. Lanekin hasi ez badira ere, dagoeneko obra materiala eraman dute bertara, eta laster hasiko direla aurreikusi daiteke.

Auzo-bihotzak proiektuaren baitan, Done Petri plaza eraldatzea ere aurreikusten du Udalak. Besteak beste, plaza zatitzen duen errepidea sei erraietatik laura murriztu, frontoiaren aldea lorategi txikiz hornitu, haurrentzako jokoen gunea estali eta kioskoaren ordez 370 metro koadroko estaldura bat jartzeko asmoa du.

Mahai gainean jarritako berrikuntzen inguruan oharra kaleratu du Deustuko Gazte Asanbladak. Proiektua "iruzur hutsa" dela eta intentzio elektoralistekin egin izana salatu dute. "Auzo-bihotz filosofiatik oso urrun" dagoen proposamena dela deritzote, eta onartezintzat jo dute auzotarren eta gazteen nahiak eta beharrak aintzat ez hartzea horrelako proiektu bat aurrera eramaterakoan.

Oharrean plazak zatituta jarraituko duela eta espazio kolektiboak murriztuko direla azpimarratu dute. Izan ere, errepideari bi errail kendu arren, trafikoak bera izaten jarraituko du, ez baita murrizteko neurririk planteatu, eta "erabiltzaileentzat ibilgailuen mehatxua ez da desagertuko", azaldu dute. Horrez gain, kioskoaren ordez Udalak jarri nahi duen erabilera anitzeko estalkiak jende asko bilduko dituen herri ekimenak antolatzeko funtzionaltasunik ez duela uste du Gazte Asanbladak.

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

RENAULT QUALITY MADE

RENAULT WORLD CHAMPION ENGINE

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

RENAULT

SAN INAZIOKO GELA EGONKORRA

Orain dela hamar urte sortu zen San Inazio auzoko eskolan Gela Egonkorra. Gela honen helburua Haur eta Lehen Hezkuntzan premia berezi larriak eta eragozpen handiak dituzten ikasleei erantzun zuzena ematea da.

Testua: San Inazio eskolako Gela Egonkorra

Ikasturte honetan, gure gelan bost ikasle daude, nor bere berezitasun eta beharrizanekin. Ikasleetako batek atzerapen nabaria eta gurpil aulkia dauka eta besteek TEA diagnostikoa daukate. Alterazio garrantzitsuenak oinarrizko arloen garapenean, ahozko adierazpenean eta hizkuntza gabezian dituzte. Hori dela eta, laguntza zuzena eta gainbegiratze beharra dute.

Gela egonkorraren helburu nagusia ikasleen ongizatea lortzea da. Horretarako, bakoitzaren beharrizanak kontuan hartuz curriculuma egokitzen dugu eta haien beharrizanei erantzun egokia ematen saiatzen gara. Proposatzen dugun curriculuma ikasketa funtzionaletan oinarritzen da, komunikazio eta garapenaren estimulazioari lehentasuna emanez. Horretarako ondorengo tailerrak egiten ditugu: sukaldaritza, ortua eta landareak eta eskulanak.

Ikasle hauekin esku hartzea dutenak taldeko tutorea den P.T. irakaslea eta bi H.L.E. dira. Haietaz gain, beste profesional batzuek egiten dute lan ikasleekin, hala nola, Entzumen eta Mintzamen irakasleak, fisioterapeutak, musikako irakasleak eta ingeleseko irakasleak.



Gure eguna eskolako errutinekin hasten dugu. Lehenengo, ikastetxeko atean harrera egiten diegu, guztiok elkarrekin gelara joateko. Heltzen garenean gizarte ohiturak (agurrak) eta autonomia (jakak erantzi eta eskegi) lantzen ditugu. Ondoren, bakoitzak bere motxilatik agenda atera eta lan mahaian esertzen da. Ikasle bakoitzak bere agendan zera du: agurrak, ikaskideen zerrenda, data, eguraldia, menua eta eguneko ekintzak. Agenda hau euskarri bisualez egina dago.

Komunikazioa lantzeko eta errazteko piktogramak eta argazkiak erabiltzen ditugu. Ikasleari laguntza bisualak ematen dizkiogu egoerak ulertu eta partekatzen laguntzeko. Informazio guztia gelan ditugun panel batzuetan jartzen dugu eguna antolatzeko eta ekintzak aurreikusteko. Horrez gain, eskolako leku adierazgarriak piktogramekin adierazita daude, ikastetxeko eremuen ezagutza erraztu eta gainerako ikasle, familia eta irakasleek komunikazio sistema hau ezagutzeko.

Hurrengo saioetan lan pertsonala egiten dute edo ordenagailuarekin aritzen dira. Egun batzuetan gela arrunteko ekintzetan parte hartzen dute: ipuinak, bideoak, jolasak, Musikako saioak, Ingeleseko saioak, Gorputz Heziketako saioak... Gainera, patioan, jantokian, ospakizunetan, jaietako ekintzetan (Inauteriak, Olentzero...) eta haientzat egokiak diren txangoetan gainerako ikasleekin elkartzen dira.

Gela Egonkorreko ikasleen beharrei erantzuna emateko baliabide egokituak erabili behar ditugu. Batzuetan, ikasle bakoitzaren beharren arabera baliabide horiek erosten

ditugu; beste batzuetan, guk sortzen ditugu ikasleek erantzun pertsonalizatua eta egokia izan dezaten.

Ikasle hauen gurasoekin harreman estua daukagu. Komunikazioa trukatzeari esker, gurasoak lasaiago egoten dira eta dituzten kezkak argitu ditzakete, eta guk ikasleen errealitatea hobeto ezagutu dezakegu.

Inklusioa indartzeko, eskolako partaide guztiek ahalegin handia egiten dute gela egonkorra ikusarazten. Gure ustez, aniztasuna eta inklusioa garrantzitsuak dira ikas komunitate osoarentzako, guztiontzat onuragarri eta aberasgarri baitira. Nahiz eta lan gogorra izan eta bidean zailtasunak aurkitu, pozik eta arro gaude egindako lanarekin. Hala ere, egin beharreko bidea luzea da oraindik.

ARTEBI
MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN BILBOKO ESKOLA
MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA
Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

ITSAS-GUDUA IBAIZABALEKO URETAN (1873)

1874ko otsailean hasi zen bigarren karlistadako Bilboko setioa. Maiatzera arte iraun zuen. Baina hilabete batzuk lehenago ere, Ibaizabal zen Bilbo Espainiako armadarekin lotzeko bide bakarra. Eta karlistek bazekiten.

Testua
Hektor Ortega

1873. urteak aurrera egin ahala, karlisten matxinadak indarra hartu zuen Hego Euskal Herrian. Laster egin ziren Bizkaia gehienaren jabe eta Bilbo inguruan agertzen hasi ziren. Abuztuan Portugalete konkistatzeko saiakera egin zuten, baina ez zuten helburua lortu, Buenaventura goleta militarra garnizioa laguntzera heldu zelako. Azken xedea, ostera, argi erakutsi zuten: Bilbo mendean hartu nahi zuten.

Horretarako, lehenengo blokeatu behar zuten. Herrialde gehiena haien eskuetan zegoela, Espainiako armadak bide garbi bakarra zeukan Bilborekiko harremana segurtatzeko: itsasadarra. Baporeak eta belaontziak gora eta behera zebiltzan, tropa, hornidura eta jakien garraioan, Bilbok haien eskuetan segituko zuela bermatzeko. Gainera, Espainiako armadak destakamentuak jarri zituen Sestaon (Desertuan, egun Kaikuren pabiloia dagoen aldean) eta Lutxanako zubiaren ondoan.

Abuztuan bertan ekin zioten karlistek Ibaizabaleko ontzi jario hura oztopatzeko lanari. Irailaren hasieran, Bilboko prentsa liberalak idatzi zuenez, “los carlistas han principiado a molestar con tiritos a los vapores de la ría y las personas que tienen la desgracia de atravesar el camino de Deusto a Olaveaga”. Tirotxo ziztrin haiek, ostera, laster gaiztotu ziren. Irailaren 9an, Irurac Bat bilbotar egunkariak jakinarazi zuenez, Deustuko soldadu osteak eta boluntarioek tiroka ekin eta ekin eman zuten gau osoa, karlisten suari erantzuteko. Baina etsaien erasoa amarrua baino ez zen izan, goizez jakin zutenez: “Gaur goizean itsasadarrean, Zorrotza parean, ertzetik ertzera doan hesia agertu da”. Hesia Somorrostro izeneko bapore txikiaz eta zenbait txalupa eta gabarraz egin zuten, harriz lepo beteta eta elkarri estu lotuta. Biharamunean, Espainiako armadak 700 soldaduko ostea bidali zuen, zutabe bitan antolatuta, ezker aldetik bata, eskuinetik bestea, hesia garbitzera. Ferrolano baporeak ere lagundu zuen. Gabarrak dinamitaz lehertu zituzten eta Somorrostro baporea zirgatik tiraka igo zuten Bilbora. Karlistek tiroka oztopatu zituzten lanok.

Jazarpena areagotu baino ez zen egin hurrengo asteetan. Karlistenak ez ziren indar militar handiak, oste txiki batzuk baino ez, baina nahikoa gora eta behera zebiltzan ontziak tiroz josteko. Tiroketa gehienak Zorrotza eta Lutxana arteko zatian egiten zituzten, ezkerraldetik, baina baita Elorrietatik ere. Hain bilakatu zen garrantzitsua itsasadarraren komunikazio bidea ezen prentsa gerra baporeen mugimenduen berri ematen hasi baitzen. Irurac Batek, esate baterako, honela kontatu zuen urriaren 9an: “Aspirante gerra baporea atzo jaitsi zen Desertuko ainguralekura; Gaditano Sestao aurrean zegoen; Buenaventura goleta, Portugaleten; eta Ferrolano baporea, Bilboko Areatzan, konponketa lanak egiten”.

Hurrengo asteetan karlistek aurrera egin zuten. Lantzean behin Deustura jaisten hasi ziren, Berriztik eta Artxandatik behera ibai ondoraino. Abenduaren 1eko Irurac Batek jakinarazi zuenez, matxinatuak Deustuko elizaz jabetu ziren eta zelatariak jarri zituzten Botika

eta Zerbezeria (Goosens jauregia) aldean. Bilbo gero eta bakartuago zegoen.

Karlisten garaipena

Kinka larri hartan, agintariek neurriak hartu zituzten. Bilbo eta Portugalete arteko bidea egiteko konboiak antolatu zituzten, betiere gerra baporeen babesean joan zitezen. Abenduaren erdialdean Irurac Batek kontatu zuenez, "la escuadrilla que anteayer salió convoyada por el vapor de guerra Gaditano fue vivamente hostilizada por los facciosos en diferentes puntos de la ría y lo mismo sucedió ayer con los vapores que entraron y bajaron protegidos por el de guerra Ferrolano".

Hurrengo egunetan ibaiaren kontrola galdu zuten. Madrileko La Igualdad egunkariak Bilboko prentsa aipatuz argitaratu zuenez, goizeko hamarretan Davila baporea Deustu aurrean hondartu zen, Botika aurreko txurroetan (ur azpiko haitzetan). Handik gutxira dozena bat karlista armatu agertu zen, "a cuyo frente se hallaba el hijo del sepulturero de la anteiglesia de Deusto". Kaitik kapitainari deitu zioten eta hura ontzi gainean agertu bezain laster tiro egin zioten. Ontziko beste gizon bi ere hil zituzten, haietako bat soldadu. Gaueko hamaiketan, mikelete konpainia bat bidali zuten Deustura eta Botikako etxeaz jabetu ostean, karlistek atzera egin zuten. Orduan baporeak Bilboraino jarraitu zuen.

Hala ere, Bilboko eta Madrileko prentsan albiste onak azaldu ziren Armadaren alde: Deustuko elizaz jabetu omen ziren mikeleteak eta karabineroak, eta Ferrolano eta Gaditano gerra baporeek zeharo txikitu zituzten karlistek Lutxanako zubiaren inguruan atondutako gotorlekuak.


Bilboko Areatza 1874ko setioan.

Hain onak ez ziren izango albiste haiek, edo ez ziren hain albiste izango: abenduaren 29an karlistek itsasadarra katez itxi zuten Zorrotza parean eta Olabeagaz (Deustuko erriberaz) jabetu ziren. Biharamunean Espainiako armadak leherkariz betetako txalupa bat bidali zuen bidea libratzeko baina hesiaren kontra jo baino lehen egin zuen eztanda. Harrezkero, ibaia itxita gelditu zen. Aspirante baporea Bilbon gelditu zen, blokeatuta eta matxuratuta. Gainerakoak ibaitik behera zeuden. Urtarrilaren 6an Ferrolanok Desertutik alde egin behar izan zuen eta hilaren 11n, Gaditano eta Buenaventura gerra ontziak ere Portugaletetik atera ziren, etsaien sutik ihesi. Hamar egun geroago, Portugaletek amore eman zuen. Karlistek irabazi zuten Ibaizabaleko itsas-gudua eta Bilbo setiatzeari ekin zioten.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

GREBA FEMINISTA DEUSTU ETA SAN INAZION

Martxoaren 8a gero eta hurbilago dago eta emakumeen antolakuntzarako nahia nabaria da Bilboko auzoetan. Deustun eta San Inazion asanblada irekiak antolatu dituzte egun horretarako deituta dagoen greba auzoetara zabaltzeko.

Testua:
Deustuko eta San Inazioko emakume* asanbladak

Batean eta bestean egin dituzte emakumeen* asanblada irekiak martxoaren 8ko greba feminista antolatzeko. San Inazion otsailaren 22an elkartu ziren, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguneko ekintzak prestatzeko. Hainbat emakume* elkartu ziren, eta aurreko urteko dinamikari jarraiki, egun osoko egitaraua antolatu dute auzoan.

Astebete lehenago hasiko dira grebaren nondik norakoak auzotarrei azaldu eta batzeko deia luzatzen. Aurreko gauean kalera aterako dira greba iragartzera, eta egunean bertan goiz eta arratsaldez kalejira zaratatsuak egingo dituzte.

Emakume* guztiek lanuztea egiteko aukera izan dezaten bermatzeko, ordu erdiko geldialdia antolatu dute, 11:00etan Lebanten hasi eta 11:30etan Ibarrekolandan amaituko den manifestazioarekin batera. Horren ostean, Deustuko emakumeekin* elkartuko dira itsasadar inguruan egingo den giza katera batzeko.

Errondoko Auzo Etxea zaintza gunea izango da egun osoan zehar, eta bertan bazkalduko dute San Inazioko emakumeek*. Gero, 17:30ean, kontzentrazioa egingo dute Sarrikon eta elkarrekin joango dira Bilbora, arratsaldeko manifestazioarekin bat egiteko.

Deustun ere hainbat asanblada egin dituzte martxoaren 8ko eguna prestatzeko. Lehenengo asanbladan emakumeen* helburuak, beldurrak, nahiak eta kezkak identifikatu eta greba auzoan zelan indartu pentsatzeari ekin zioten. Bi data zehaztu zituzten martxoaren 8aren aurretik: otsailaren 28an besoko moreak fabrikatu eta salduko dituzte Done Petri Plazan eta martxoaren 1ean kalejira zaratatsua egingo dute, 19:00etan Done Petritik abiatuta, grebaren aldarria lau haizetara zabaltzeko.

Martxoaren 8a gosariarekin batera hasiko dute deustuarrek. 10:00etan jarri dute hitzordua eta bertan ere besoko moreak eskuratzeko tartea egongo da. Ostean, kalejira egingo dute Deustuko kaleetan barrena eta 12:00etan Bilbora abiatuko dira, Kale Nagusian 13:00etan egingo den giza katera batzeko. Azkenik, elkarrekin bazkaldu eta 19:00etan Bihotz Sakratutik abiatuko den manifestaziora hurbilduko dira.

Egitarau ahalik eta zabalena prestatu dute, Deustuko eta inguruko emakume* guztiak ekintzetara eta grebara batzeko animatu eta, heteropatriarkatu kapitalistari planto egiteko. Gainera, aurreko urteko dinamikarekin jarraituz, beltzez jantzita eta besoko morearekin joateko gonbidapena luzatu dute.

“ZELAN DA POSIBLE GERTATZEN ZENA JAKITEA ETA EZ SALATZEA?”

Deustuko Salestarrak ikastetxean irakasle aritutako lau pertsonaren aurka 30 bat ikasle ohik salaketa aurkeztu dute. Ukituak, muxuak, masturbazioak, bortxaketak eta jipoiak salatu dituzte.

Zortzi ikasle ohik urtarrilaren amaieran emandako urratsak hautsak harrotu ditu Deustun. Batik bat, hasierako zortzi salaketaren ostean, 20 salaketa baino gehiago aurkeztu dituztelako beste hainbeste ikasle ohik. Gehienek Ertzaintzara jo badute ere, egun Euskal Herritik kanpo bizi direla eta, hiruk gutxienez Guardia Zibilaren aurrean jarri dute salaketa eta batek Mossos d’Esquadrarenean. Ez solik Jose Miguel San Martin irakasle ohiaren aurka, baita —zenbait hedabideren arabera— Deustuko Salestarrak ikastetxeko beste hiru irakasleren aurka ere. Tartean dago ikastetxeko zuzendari izandako bat —hilda dago—.

Salaketek 60ko hamarkadatik 90eko hamarkadara irakasleek ikasleei, 8 eta 10 urte bitartean zituztela, eginiko eraso fisiko eta sexualak dituzte oinarri: ukituak, muxuak, masturbazioak, bortxaketak eta jipoiak. Delituak preskribatuta egon arren, “egia argitzea” nahi dute salatzaileek.

Izan ere, oso minduta eta haserre daude salestarren buruekin. “Ikastetxeak bazekielako abusuen berri, eta ezkutatu egin zituelako”, salatzaileen arabera. 1989an bi familiek jo zuten zuzendaritzara abusuen berri emanez. Ikastetxeak ukatu egin zuen San Martinen aurkako kexarik jaso izana. Egun batzuetara,

aldiz, kontrakoa esan zuen: “Ez genuen jokatu auziaren larritasunak eskatzen zuen bezain azkar”, San Martinek tutore lanetan jarraitu zuelako.

Hain zuzen, ikasle ohi batek salatu duenez, 1990ean irakasleak sexu abusuak egin zizkion behin baino gehiagotan. “Zelan da posible gertatzen zena jakitea eta epaitegietan ez salatzea? Horrek frogatzen du ez zutela ezer egin”, diote biktimek. Deustun kezka bera zabaldu da herritarren artean. Horregatik sortu dute plataforma bat biktimei babesa emateko eta, otsailaren 8an Done Petri plazan burutako elkarretaratzean azaldu zutenez, “berriro horrelakorik ez gertatzeko”.

Testua:
Lur Mallea
Argazkia:
Ecuador Etxea

CONCHA CASTELLS CARRILLOerekin

“Ezinbestekoa da heriotzari buruz

Maribel Tellaetxeren auziak eutanasia berriz jarri du mahai gainean. Concha Castellsek (Deustu, 1960), Euskadiko Duintasunez Hiltzeko Eskubidea Elkarteko zuzendariak, Espainiako Legebiltzarrean tramitatzen ari den legearen bultzadan dihardu. Onartzeko oztopoak izaten ari dira eta badirudi itxaron egin beharko dugula azkenean legezkoa egingo duten jakiteko.

Testua: Amaia Igartua **Argazkiak:** Iñigo Azkona

hitz egitea, noizbait denok hilko garelako”



Noiz sortu zen DMD (Duintasunez Hiltzeko Eskubidea)?

Estatu mailakoa, 1984an. Euskadin, elkartea Donostian hasi zen, Bartzelonan zegoen egoitza zentralarekin koordinatzen ziren bazkide gutxi batzuek osatua. 2001ean, DMD Euskadi elkarte independente gisa sortu zen.

Zein da elkartearen helburua?

Helburu nagusia, sorkuntzatik hala adierazia, pertsona orok noiz hil nahi duen aukeratu ahal izatea da, eta heriotza legalki eta berme guztiekin gauzatzea; erabaki hori beste edozein bezala hartu ahal izatea, alegia. Gaixotasun edo zailtasun larria duten pertsonek lortu ahal izateko, bereziki.

Zertan datza heriotza duin baterako eskubidea?

Lehenik, pertsonek bizitza amaieran zainketa aringarri egokiak izan behar dituzte, sufritu ez dezaten. Bistakoa dirudien arren, beti ez da horrela gertatzen. Euskadin garatzen ari dira, baina oraindik ez dira guztiengana heltzen. Zentroaren, lurralde historikoaren eta zerbitzuaren garapenaren araberakoa izaten da aplikazioa, eta artatzen zaituen medikuaren ideologiak ere eragiten du. Askok sedazioa ukatzen dute eutanasia delako ustean, nahiz eta sedazioa ez egitea praxis txarra izan medikuntzako elkargoen arabera. Ezjakintasun handia dago. Bestalde, eu-

“Ezjakintasun handia dago heriotza duinaren aplikazioaren inguruan”

▷ ▷ SAKONEAN

“Heriotza azken tabua da”

Gizartea prest al dago eutanasiaren legeztatzerako?
Metroscopiak argitaratutako azken inkestan %80 zegoen ados. Zeharkakoa da, ideologia guztietan aldekoak daude. Klase politikoa da pausua ematen ausartzen ez dena, hierarkia eklesiastikoa atzean duelako, nik uste.

Suizidioak tabua izaten jarraitzen du.
Tabua, oro har, heriotza da, azken tabua. Gainontzekoak desagertu dira, baina heriotza ezkutatu egiten da, ez da haren inguruan hausnartzen. Ezinbestekoa da horri buruz hitz egitea, noizbait denok hilko garelako. Kataluniako DMDk, esaterako, material oso onak ditu gaia eskoletan eta hedabideetan jorratzeko. Gainera, *death coffees* deituriko ekintzak gero eta gehiago antolatzen dira: jendea toki lasaietan biltzen da heriotzari buruz hitz egiteko.

tanasiarako legea lortzea da heriotza duin baterako eskubidearen beste zutabea.

Non dago baimendua? Zer herrialde izan daitezke erreferente?
Kolonbian, Kanadan eta AEBetako eta Australiako estatu batzuetan eutanasia baimendua dago. Europan, Herbehereek, Belgikak eta Luxenburgok 17 urte daramatzate eutanasia legeekin. Hasieran polemika egon zen, baina normaltasunez garatu dira. Herrialde horietan jazotako heriotzen %3, gutxi gorabehera, eutanasiagatik izaten dira. Suitzan eutanasia ez dago baimendua, baina bai lagundutako suizidioa. Hots, ez da egongo txerto letalik jarriko dizun medikurik; gaitasun mental osoa duzula eta legeak ezartzen dituen egoeran zaudela ziurtatu ondoren, klinikan sustantzia bat ematen dizute zuk edan dezazun. Arazorik egotekotan, laguntzen dizute. Baina eutanasia debekatua dago.

Zergatik?
Alde morala dago suizidatzen laguntzearen eta heriotza eragitearen artean. Guretzako garrantzirik gabeko ñabardura da, baina jende askorentzako ez.

Espainiar estatuan, egungo legeekin, zer aukera du erabaki hori hartu nahi duenak?

2002. urtean Pazientearen Autonomiaren legea onartu zen. Ezer egin aurretik baimena eskatu behar dizute eta zuk uko egiteko eskubidea duzu. Kasu horretan, tratamendu alternatiboa proposatu behar dizute eta, ez egotekotan, mina edota deserosotasuna tratatu behar dizute. Bestalde, heriotza duinerako lege batzuk daude, EAEn ere onartuak, zainketa aringarri unibertsalak baino ez dituztenak bermatzen, eta soilik hilzorian daudenentzat. Kitto, hor bukatzen dira zure eskubideak. Hainbat auzitegik heriotzarako eskubidea ukatu due; bizitzarako eskubidea baino ez omen dago. Kode Penaleko 143 artikuluak kartzela zigorrak ezartzen dizkie suizidatzen laguntzen duten horiei.

Zertan lagun dezakete aurretiazko borondateek?
Aurretiazko borondateek kontzientzia gabe egotekotan hartu ezin ditzakezun erabakiak ezartzeko balio dute. Senitarteen arteko eztabaidak saihesteko ere bai, zuk erabakitakoa ezin duelako inork eztabaidatu. Maribel Tellaetxeren kasuan, alzheimerra diagnostikatu ziotenean, idatzita utzi zuen ingurukoak errekonozitzeko ezgai zenean eutanasia aplikatzea nahi zuela, ordurako legeztatua egotekotan.

Elkarteak zer laguntza eskain diezaieke egoera honetan dauden familiei?
Eskubideetan aholkatzen diegu: Pazientearen Autonomia legea, Aurretiazko Borondateak, zainketa aringarrietarako eskubidea... Bestalde, bazkide bihurtu eta hiru hilabetera, elkarteak autoaskatasunerako gida bidaltzen du, bizitza modu baketsuan bukatzeko moduak biltzen dituena.

Zenbat lagun hurbiltzen zaizkizue?

Etengabeko jarioa da. Asko senitarteko batekin bizitako egoeragatik etortzen dira, haiek bizi nahi ez dutelako. Guztira, 400 bazkide gara Euskadin. Nahi dutena baino gehiago bizi behar ez izatea bermatu nahi dute. Askok aurretiazko borondateen inguruan galdetzen dute.

Aurkakoen argumentu nagusia eutanasia beharrean zainketa aringarriak indartzearena da.
Ez dute zerikusirik. Zainketa aringarriak ezinbestekoak dira eta oraindik behar bezala garatzeke daude. Baina Maribel Tellaetxek, adibidez, ez zituen ezertarako behar. Berak bizitzen ez jarraitzea eskatu zuen. Gainera, eutanasia baimendua dagoen herrialdeetan daude garatuen, erabakia hartu aurretik zainketa egokiak eskaini direla ziurtatu behar delako.

Zertan zabiltzate orain?
Legearekin ari gara. Legegintzaldia izugarria izan da. Hasieran, Podemosek oraingoa baino hobea zen legea aurkeztu zuen, baina atzera bota zuten. Zentsura mozioaren ondoren gobernura heltzean, PSOEk lege bat aurkeztu zuen. Ganberaren gehiengoarekin egin zuen aurrera, baina PP eta Ciudadanos Kongresuko mahaitik oztopatzen ari dira. Ciudadanosek alde bozkatu zuen, baina orain boikoteatzen ari da. Legeak eutanasia baimenduko luke ezgaitasun larriko edo min handiko egoeretan.

Nahikoa da?
Ez, baina aurrera pauso handia da. Eskatzaileak sufrimendu izugarria duela ziurtatu beharko du eta, gure ustez, pertsona orok izan behar du erabaki hori hartzeko libre, sufrimendua gorabehera. Bakarrik ziurtatu behar da pazienteak gaitasun osoa izan duela erabakia hartzeko, ez dagoela familiak, egoera ekonomikoak edo buruko gaitzak bultzatua. Hala ere, eutanasiaren eskaeren %80 sartzen dira lege honen barruan.

“Zainketa aringarriak eutanasia baimendua dagoen herrialdeetan daude garatuen”

ATLETISMOA

Enriquez Euskadiko txapeldun

Otsailaren 9an Donostiako belodromoan Araba, Bizkai eta Gipuzkoako pista estaliko atletismo txapelketa antolatu zen eta bertan gure auzokidea den Jon Enriquez gazteak 1.500 metroko lasterketan urrezko domina lortu zuen. Oso lasterketa estua izan zen, izan ere, azkeneko zuzengunean aurkariak aurreratuz lortu zuen lehenengo postua eta segundo-hamarren bat baino ez zion atera bigarren sailkatuari. Torremadariagakoak pista estaliari 7 buelta eta erdi emateko 4 minutu eta 7 segundo behar izan zituen. Euskal Autonomi Erkidegoko atletekin batera, Nafarroakoek ere parte hartu zuten, antzina bezala. Oraingoan, baina, bi sailkapen ezberdin egin zituzten. Jon Enriquezek Portugaleteko atletismo taldearekin egiten du lasterka eta Zorrotzako atletismo pistan entrenatzen ohi da Jose Luis Garcia San Inazioko entrenatzailearen agindupean.

KIROLA

Deustuko I. Herri Krosa

Martxoaren 23an, Deustuko Jaiak azken txanpan sartuko direnean, Deustuko lehenengo Herri Krosa antolatuko du Munabi Kirol Klubak. Lasterketa nagusia 17:00etan abiatuko da Botikazar parketik eta korrikalariek 7.000 metro egin beharko dituzte helmugara iristeko. Jarraian eskola-krosaren txanda izango da: sei lasterketa prestatu dituzte Deustuar gazteentzako, 150 metrokotik hasi eta 1.600 metrokora arte. Txapelketa, gainera, 90 urterekin lasterketa herrikoietan parte hartzen jarraitzen duen Fortunato Vencedorri omenaldia egiteko aprobetxatuko dute. Parte hartzeko Deustuko Merkatuko tabernan bertan edo kirolprobak.com helbidean eman daiteke izena. Haurrek egunean bertan eman ahalko dute izena, lasterketa hasi baino ordubete lehenago. Munabi Kirol Kluba iragan urrian aurkeztu zuten deustun (Prest! 196). Hasieran atletismoa oinarri izango duen arren, etorkizunean igeriketa, txirrindularitza eta triatloi taldea osatzeko asmoa dute sortzaileek.



DISPERTSIOA

Beste istripu bat

Herrera de la Mancha espetxean (Deustutik 600kilometrora) dagoen Jon Mirena San Pedro Blanco deustuar preso politikoaren bi lagunek istripua izan zuten otsailaren 2an, bisita egin ostean etxera bidean zetozela. Ezbeharra arratsaldeko 16:10ak aldera gertatu zen Pancorbo inguruan (Burgos, Espainia), elurraren ondorioz aurreko bi kotxeek laprast egin eta haietako bat errepide erdian guru-tzatuta geratu zen; presoaren lagunek ezin izan zuten talka ekidin. Kalte pertsonalak txikiak izan ziren, baina autoa txikituta gelditu zen. Asteburu horretan dispertsioak beste istripu bat eragin zuen, laugarrena urtea hasi denetik.

INAUTERIAK

San Inazio, Ibarrekolanda eta Erriberaren txanda

Deustuko inauteriek ireki zuten mozorro sasoia otsailaren azken asteburuan. Bilbokoen ostean, San Inazio, Ibarrekolanda eta Erriberako inauterien txanda izango da, martxoaren 9an guztiak. Batean zein bestean egun osoko egitaraua prestatu dute, auzokideak mozorroa armairutik ateratzera animatzeko.

San Inazion *ogibideak* gaia aukeratu dute mozorroak prestatzeko. Erraldoien kalejira, desfilea, bazkari herrikoia, haurrentzako ekintzak, poteo musikatua eta DJa izango dira egun osoan zehar auzoko gune ezberdinetan. Ibarrekolandatarrek *ipuinak* aukeratu dituzte auzoa apaindu eta "ipuinetako auzo" bihurtzeko. Egunean zehar ez dira faltako ohikoak diren puzgarriak, Kokotean Kolpe fanfarrea, indaba-jana, txokolatada, DJ Xaibor disko festa eta Ibarretukada batukada. Erriberan ere egun berean ospatuko dituzte inauteriak. *Erribera edo Venecia?* gaia ardatz hartuta, jai giroa eta aldarrikapenak nahastuko dituzte. Haurrentzako tailerrak, mozorro desfilea, herri bazkaria, sari banaketa, txotxongiloak eta musika emanaldiak antolatu dituzte martxoaren 9rako. Hortaz, planik ez da faltan izango gurean martxoko bigarren asteburuan.

Urtea: 1969

Txema Luzuriaga

La Salve zubia eraikitzen

Itsasadarraren ikuspegi panoramiko honetan La Salve zubia eraikitzeko lanak hauteman daitezke. Artxandatik Bilbora egindako argazkia.

FOATek utzitako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

~IZEKI~
TABERNA
BETI IZEKAN SUA
argi bat izeki zen zeruan
su horidun sugarra ostopo
itzalsuen atzean
Ramon & Kajal 26
DEUSTU
IZEKI

DENDA REKIERA
gizonentzako denda
Level 11
Madariaga 10 DEUSTU
level11.es 946 85 53 80

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147
SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
☎ 656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri Taberna
Good vives!
Luzarra,6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
BFA DFB

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎ 94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer deritzozu Lebante plazako kioskoan jarri duten egitura berriari?

Jose Felix
San Inazio

Euri garairako ondo dago, batez ere haur eta nagusientzat. Hori bai, susmoa dut obra garestiegia ez ote den izango erabili duten materialerako; lau makil eta plastiko bat. Gainera, ez dakit jaietan txosnak eta agertokia sartuko diren...

Bego
Galdakao

Nire herrian orain gutxi jarri dute horrelako egitura bat eta oso pozik nago. Umeek jolastu ahal izateko bikaina da.

Argi
San Inazio

Kioskoaren zati bat bakarrik hartu beharrean osorik inguratu beharko lukeela uste dut. Haur eta nagusientzat oso ondo dago, izan ere, plaza hain handia izanik ez dauka apenas leku estalirik.

Nagore
Barakaldo

Erabilgarria iruditzen zait, baina lehen plaza politagoa zen. Oso arraro geratzen da plastikozko egiturarekin.

Carlos
San Inazio

Ondo iruditzen zait, horrela jaietarako ere aprobetxatu daiteke. Hori bai, beste iturri bat jarri beharko lukete plazaren alde honetan.

Unai
San Inazio

Ez dut uste beharrezkoa denik, baina euria egiten duenerako ondo dago. Egun eguzkitsuetan, ordea, ez du ezertarako balio.



>> MUSIKA

AMETSAK PROIEKTU BIHURTUZ

Ohikoa bihurtu da gaur egungo gazteen artean ikasketak amaitu eta ikasitakoarekin zerikusirik ez duen lanetan ibili behar izatea, ezer erakargarriagorik aurkitu gabe. Ostera, lanean egunak gustura eta gogotsu ematen dituen gazte multzo txiki bat ere badago. Ieltxu Gimenez (Deustu, 1995) lanera pozik doan gazte horietako bat dela esan daiteke, luzaro amesturiko grabaketa estudioa ireki berri baitu.

Testua: Nerea Cubillo - **Argazkiak:** Phase Estudioa

Zazpi urte baino ez zituela hasi zen Ieltxu Bilboko Musika Eskolan ikasten. Gaur egun bertan jarraitzen du, eta erromeria talde bateko bateria-jotzailea eta soinu teknikaria ere bada. Musikazale amorratua izanik, bertatik bizi eta lan egin nahi du, behintzat denbora tarte luze batean.

Joan den urrian eman zuen gazte deustuarrak bere grabaketa eta produkzio estudioaren berri, eta ongi etorri beroa jaso zuen Deustuko eta beste hainbat tokiko musikari eta lagunen aldetik. Phase Estudioa delakoa, lan eta esfortzu handiaren osteko saria dela aitortu digu. Bi urte luze eman ditu espazio hau eraikitzen, lagun eta senideen laguntzarekin. Goitik behera autogestionatutako proiektua da, izan ere, berak diseinatu eta eraiki baititu estudio honetako pareta, lur eta hutsune guztiak.

Duela lau urte inguru Soinu Gradua amaitu eta hainbat enpresatan freelance gisara hasi zen lanean. Orduan erabaki zuen bere proiektu propioa eraiki nahi zuela, 20 urte baino ez zituenean. Familia eta lagunen babesarekin ekin zion bide horri.

Gaur egun, espazio honetan hainbat lan egin daitezke. Hala nola, preprodukzio, produkzio eta grabaketa, nahasketa edo masterra, musika taldeen entseguak egiteko eta grabatzeko aukera, zuzeneko bideoak, lokuzioak, bateria klaseak eta beste hainbat aukera daude.

Phase Estudioarekin ikasten eta musikari bezala

hezten jarraitu nahi du deustuarrak. Estudio propioa izateak ematen duen askatasun guztia bide, proiektu berriak sortzeko eta hauekin jolasteko aukera ematen diola azaldu digu. Ieltxuk hasieratik izan du argi musikarekiko zaletasuna, eta horretaz bizitzea erabaki zuenetik ez du amore eman. Phase estudioa da horren adibide argienetarikoa.

Bien bitartean, gogotsu dago tokiko musika taldeak grabatzen hasteko, beste talde batzuk ezagutzen asko ikasten dela uste baitu. Horrekin batera, edozein musika-proiekturen sorreran laguntza edo aholkuak behar izatekotan berarekin harremanetan jartzeko gonbitea luzatu die Deustuko eta inguruko musikazaleei. Kontaktua: phaseestudioa@gmail.com

http://sarekada

gedar.eus
gedar.eus/blog

Gedar Langile Kazeta

"Borrokatik eta borrokarako" jaioa, langile klasearentzat tresna politikoa izateko helburuarekin sortu da Gedar. Hedapen politikorako tresna komunikatiboa izan nahi du, "langile klasearen emantzipazioa xede duen politikaren artikulazioan eragiteko". Kazetaren sortzaileek adierazi dutenez, helburua ez da "informatzeko borondate soila", eta hortaz, azken orduko gertakarien konpetentzian aritu baino, "errealitatea ulertzeko eta antolatzeko" tresnak eskainiko ditu. Ikuspegi estrategiko iraultzailez hornitutako tresna izan nahi du Gedar-ek, "bazterrean utzitakoen potentzia politikoa askatzeko eta aldarrikatzeko". Otsailaren 15ean hasi zuten Euskal Herri osotik kazetaren aurkezpen bira. Maiatzaren 24an Bilbon aurkeztuko dute.

blogetan.eus

Blogetan! lehiaketaren hirugarren edizioa

Blogetan! Blog izarren bila ekimena Azkue Fundazioak eta Argiak abiatu zuten elkarlanean 2013an. Geroztik, blogari euskaldunak piztea eta horien lanari oihartzuna ematea dute helburu. Kultura, Gizarte eta Politika, Aisialdia eta Zientzia eta Teknologia kategorietan egituratzen da lehiaketa eta edonork har dezake parte bertara bere bloga aurkeztuz. Bost sari banatuko dira guztira: kategoria bakoitzeko blogarik onenari bana eta, ARGIAren eskutik, bosgarren sari berezi bat, 2018an zehar sortutako blog berri onenari.

Mastodon.eus

Sare sozial libre eta euskalduna

Joan den azaroan aurkeztu zutenetik, etengabe hasi den sare soziala da Mastodon. Euskaldunak batu eta mundurekin harremanetan jarri nahi ditu sare sozial berriak. Software libre eta desentralizatua da Mastodon, eta ahatik datuen kudeaketa, pribatutasuna, erabilerarauak eta hizkuntza komunitatea norberaren esku daude. Hainbat erakunde, enpresa, talde eta norbanako daude proiektuaren atzean, hala nola, PuntuEUS fundazioa, Azkue Fundazioa, Dinahosting, Iametza, Talaios, Laborategia2.0 eta Librezale.

ipuina.eus

Euskarazko ipuinak sarean

Susa argitaletxearen Armiarma proiektuak ipuina.eus webgunea sortu du, euskarazko ipuinak biltzeko. XIX. mendetik gaur arte euskaraz idatzitako narrazioak batu nahi dituzte, genero honek euskal literaturan izan duen garrantzia eta bilakaera aztertzeko asmoz. Katua aukeratu dute ikur gisa, euskal ipuin ugaritan ageri dan animalia delako. Lehen aleak irakurgai daude dagoeneko, eta hilero ipuin berriak sareratzeko asmoa azaldu dute proiektuaren bultzatzaileek.



>> BERTSOLARITZA

AFERAK DINAMIKAREN LEHEN BALORAZIOAK

Amaitzear da Aferak bertso dinamikaren bigarren edizioa. Deustuko Herriko tabernak eta Elorri bertso-eskolak antolatuta, bost saiotan 20 bertsolari aritu dira deustuarren aurrean koplaka. Martxoaren 9an emango diote amaiera aurtengo dinamikari bertso-bazkari batekin eta antolatzaileak hasi dira lehen balorazioak egiten.

Testua eta argazkiak: Aferak bertso dinamika

Irailean batu ginen Aferak bertso dinamikako lantaldea; aurreko urteko balorazioa buruan, aurten arrakasta bera izango ote zuen jakin gabe. Egia da, oinarriak ondo finkatuz gero dena dela errazagoa. Horrela, pasaden urteko formatuarekin jarraitzea erabaki genuen: hilero saio bat, tematika jakin batekin, umorea eta gaur egungo gaiak uztartuz.

Balorazio bat egiteko, iazkoarekin konparatu behar dugu: egin ditugun aldaketek nola eragin duten, zertan hobetu dugun bertso dinamika eta jarritako helburuak bete ote ditugun. Hau horrela izanik, esan beharra dago saio bakoitzak tematika desberdin bat izateak gero eta lan handiagoa eskatzen duela. Bestalde, bost saiotatik hirutan Deustuko bertsolariak izan dira oholtzan. Gainera, bertsolari berriak ekarri ditugu eta hauek maila mantendu eta igo dute, beraz, bertsoen mailari dagokionez pozik gaude. Lehen argi bagenuen ere, oraindik are argiagoa dugu ez dugula sariketa formatua izatea nahi, lehia kutsu hori alde batera utzita.

Azkenik, aurten iaz baino ikusle gutxiago etorri dira saioak ikustera, betiere, saio bakoitzeko gutxienez 50-60 zale egonda. Joan den urtean saio jakin batzuetan ikusle gehiegi etorri ziren eta batzuk kanpoan geratu ziren.

Balorazio osoa egiteko oraindik martxoaren 9an Deustuko Herriko tabernan antolatuko dugun bertso bazkarira itxaron beharko dugu. Bertan, Aitor Sarriegi, Alaia Martin eta Amets Arzallus arituko dira kantuan. Azken saio honetan arrakasta handia izatea espero dugu. Bitartean, oso pozik gaude egindako lanarekin eta bertsolari zein ikusleen erantzunarekin.

>> POLITIKA

AUTOGESTIOAREN IKUSPEGI POLITIKOA BERRESKURATU NAHIAN

'Autogestioaz jabetuz, okupazio garaia da' proiektuaren bigarren zatiari ekin dio Zirikatzen! kolektiboak. Egitarau zabala prestatu dute apirilera bitartean. Besteak beste, hitzaldiak, mahai inguruak, tailerrak edota bideo-elkarrizketak antolatuko dituzte.

Azaroan eman zioten hasiera proiektu berriari asanblearismoaren inguruko bi tailerrekin. Bereziki Deustuko Gazte lokaleko kideei zuzenduta, asanbladen dinamikak, metodologiak, parte hartze ereduak eta erabakiak hartzeko erak mahaigaineratu zituzten.

Otsailetik apirilera beste bi jardunaldi prestatu dituzte, hiruna saiokoak. Hitzaldiak, mahai-inguruak eta tailer praktikoak egingo dituzte autogestioa eta okupazioa lantzeko. Hainbat gai jorratuko dituzte: okupazio mugimenduaren ikuspegi estrategikoa, espazioen okupazioaz haragoko bizitza eredu berrien eraikuntza, espazio okupatuen autodefentsa, jabetza intelektuala, uhinen okupazioa, okupazio eredu berriak...

Jardunaldiokin autogestioaren ikuspegi politikoa berreskuratu nahi dute Zirikatzen! kolektiboko kideek. Azken aldian okupazioaren eta autogestioaren kontzeptuak lausotzen ari direla uste dute eta, ondorioz, horrek taldearen praktika baldintzatzen duela. Gainera, Euskal Herrian autogestioaren inguruan agertutako esperientzia berriek eta Deustuko Gazte Lokalaren huste arriskuaren harira sortutako eztabaidek berriz ekarri dute gaia hizpidera. Horregatik aukeratu dute ikasturte honetan autogestioa eta okupazioa lantzea, modu globalean ulertuta.

Lan egiteko era berria

Orain arte erabilitako tresna nagusia aldizkaria izan da. Landu nahi zuten gaiaren inguruko aldizkari monografikoa kaleratzen zuten eta, horren ondotik, jardunaldiak antolatu. Ikasturte honetan, baina, kontrako norabidea hartzea erabaki dute. Joan den azaroan hasi eta apirilean amaituko dituzte formakuntza saioak, eta ostean aldizkari batean bilduko dituzte ondorioak.

Komunikazio eta formakuntza taldea da Zirikatzen!, duela 17 urte sortua. Deustuko herritarren eta, batez ere, gazteen arteko komunikazioa, eztabaida, hausnarketa eta formakuntza sustatzea du helburu. Horiek lortzeko proiektuka aritzen da taldea: gai bat aukeratu eta horri heltzeko hainbat dinamika eramaten ditu aurrera.

MARTXOAREN 29tik
APIRILAREN 28ra
www.pabellon6.org

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

PATATA TORTILA

Oraingoan Deustuko Zubira hurreratu gara eta La Terraza tabernarekin egin dugu topo. Astean zehar mota eta zapore guztietako tortillak izaten dituzte bertan. Antonio, Saray, Rakel, Eva eta Endikak horien berri eman digute.

Zailtasun maila: Erraza

Egiteko denbora: 20 minutu

Prezioa: 2,30 €

Berezitasuna: zapore guztietako tortilak egiten dituzte.

Kontu batzuk

La Terrazako bigarren belaunaldia dira Antonio, Saray, Rakel, Eva eta Endika. 1984tik era guztietako tortillak egiten dituzte tabernan. Piperdunak, odolostedunak, hirugihar eta gaztadunak, hegaluzedunak, gazta urdindunak, txanpidunak, espinakadunak, porrudunak... Tortilletaz gain, bestelako pintxoak, bokatak, sandwichak eta entsaladak izaten dituzte astean zehar. Gosari bereziak ere ematen dituzte goizetan. Bateko zein besteko, zer jan edo edanik ez da inoiz falta La Terrazan.

La Terrazako Antonio, Saray, Rakel, Eva eta Endika

CAFE BAR LA TERRAZA

LA TERRAZA TABERNA

Deustuko Zubia 1

Astelehenetik ostiralera 07:30etik 21:30era

Zein da gakoa?

Sekretua etxean bezala egitea da, ohiko erara. Arrautzak eta patatak bertokoak erabiltzen dituzte, gertuko produktuen aldeko apustu tinkoa eginez.

OSAGAIAK

Goian eta eskuinean:
Gazta eta pernila

Goian eta ezkerrean:
Hirugiharra eta gazta urdina

Behean:
Gazta, tuna, piperra eta modena ozpina

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

GORKA ZOZAIA GARCIA

Erriberako zientzia irakaslea

ERREPLIKANTEAK ARATUSTEETAN OSTENDUTA

2019 urterako kultur gomendioak deustuarrekin partekatzea proposatu zidaten pasa den urtearen hondarrean telefonoz, hain zuzen Agirre Lehendakaria etorbidea korrika gurutzatzen ari nintzela, normalean Erriberatik irten barik ibiltzen naizen *giputxi* zientzialari honi. Baiezkoa ematean burura etorri zitzaidan lehen ideietako bat izan zen 2019 urtean dagoela kokatuta *Blade Runner* film gogoangarria, eta une batez apur bat *erreplikante* sentitu nintzen Deustun gora eta behera zebilen jendetzaren artean.

Apika, aratuste garaia izanik, disimuluz pasako naiz deustuarren begietara eta ez naute berehalakoan erretiratuko. Horratx, bide batez, nire lehen kultur gomendioa: izan norbere identitatea ezkutatzeko *mozorrotuz*, edota beste identitate bat hartzeko *disfrazatuz*, parte har ezazue neguko erritoen tradizioan erroturik den ospakizun honetan. Parte hartu, eta ahal dela, ezagutu beronen jatorria eta kokatu, bere bidez, gaur eta hemen non gauden. *Erreplikante* deritzaten *Blade Runner*-eko robotek, gizakiz disfrazatuta, galdera gizatiar berberak ei dituzte: nondik natorren, nora noan, zenbat denbora gelditzen zaidan… Ez da aukera makala, beraz, zerk egiten gaituen *gizaki* hausnartu eta kulturaren paperaz ohar gaitezen.

Eta horrekin bigarren kultur gomendioa: Aratusteak Deustun jada ospatu dituzuelako, edo Erribera, Ibarreko zein Sanikoen zain zaudetelako, behar bada martxoaren 2an ez duzue planik izango eta Bilboko Arte Ederren museoan martxan den zinema eta zientzia zikloan parte hartzeko aukera izango duzue, egun horretan proiektatzen baitira *Blade Runner* (1982) eta *Blade Runner 2049* (2017) filma biak, doan gazteentzat eta ongi merke gainerakoontzat.

Ongi pasa eta on egin dagizuela!

ANDER ANAKABE LEKUE

Elorri bertso-eskolako kidea

EZ DAKIT MOZORROA JANTZI EDOTA ERANSTEN DUGUN

Doinua: ETAren su etenetik

Nola inauteri datak
hemen daudela dakigun
mozorroa prestatzeko
batzen gara hainbat lagun
indio, sheriff, pirata,
hippya, bestela zaldun
maskara jantzi ahala egin
ohi garenez ezezagun
garen modukoa izan ta
sentitzen gara errudun
ez dakit mozorroa jantzi
edota eransten dugun
estereotipo mundu hau
batera aldatu dezagun

Inauteri egunean
sorpresa ta iragarpen
negu hotz ta euritsua
mozorroen bidez eten
nire ume denboratik
ditut mila oroitzapen
tematikan murgildurik
"bizitza etapak" aurten
jakinda denontzako zein
desberdina izan leiken
kuriosoa egiten zait
nola bizi genezaken
batzuk hain maite izanik
besteek gorrotatzen duten

IKUSI ETA IKASI

• FAMILIAN EUSKARAZ GOZATU •

Tailerretan parte hartzeko derrigorrezkoa da aurretik izena ematea **www.ikusietaikasi.eus** gunean aurkituko duzuen izen-emate fitxa betez.

IZEN EMATE EPEA: URTARRILAREN 14TIK 27RA.

euskaltzaleen topagunea

Bilbao

2019ko
OTSAILA MARTXOA APIRILA MAIATZA

MARTXOAK 15-24 MARZO

DEUSTUKO JAIAK 2019

DEUSTUKO JAI BATZORDEA

AUZOTARROK
BILBOKO AUZOETAKO JAI BATZORDEAK